

2014.10.20
LURRALDE ANTOLAMENDUKO 14. bilerako AKTA

A.R., A.G.,D.E., K.F., X.I., O.A.

Gai ordena:

- Goiener
- Beko kaleko proiektua
- Bidegorria. Obraren egoera.
- Toki goxoko obra.
- Beitiko iturria.
- Aurrekontuak.

- Goiener

Goienerreko kide bat (izena) etorri da bilerara eta hainbat azalpen eman dizkigu. Hasteko esan digu duela urte bat Itsasondon emandako hitzalditik gauza dexente aldatu direla. Gaur egun Goienerrek 2000 bazkide baino gehiago ditu eta udaletxe eta instituzio publikoei zerbitzua ematen hasi da (adib. Lakuntza, Oresa, Orendain...) eta beste handi batzuekin hizketan ari da (adib. Hernani). Itsasondoren kasuan gaur egun dituen kontratu guztiak (14 ditugu) kudeatu ahal izango dituela adierazi digu. Kontratututako potentziaren azterketa txiki bat egin dute eta puntu batzuren potentzia murriztuz euro batzuk aurreztu daitezkeela esan digute. Bestela beraien prezioak Iberdrolaren parekoak izaten direla. Udaletxea Goienerreko bazkide bihurtuko balitz borondatezko ekarpen bat egitea eskatzen digute. Normalean ekarpen hori hilabete bateko gastua izaten da.

Gure aldetik erabaki dugu Goienerreko bazkide bihurtu nahi dugula udaletxea. Tramite legalak aztertuko ditugu eta baita ere beste kontu batzuk (adibidez Diputazioaren erosketa zentralarekin kudeatutako kontratuak ez migratzea). K.F. udaletxeko idazkariarekin bilduko da.

- Beko kaleko proiektua

Urriak 15ean ospatu zen Itten-ekin bideratutako parte-hartze prozesuaren bigarren batzarra. Oraingo honetan herritar gutxiago gerturatu ziren batzarrera (10 bat pertsona). Gure lantaldeko A.R, O.A eta A.G. egon ziren bilera horretan. Han hitz egindakoa esplikatu digute.

Epe luzean kalea helburua kalea norantza bakarrekoa bihurtzea da. Baina hori lortzeko subjektu ezberdinekin landu beharra dago: Diputazioa (errepideak), inguruko enpresak... Bestela identifikatu diren arazo sektorialentzat irtenbide ezberdinak proposatu dira. Itten-ek bidalitako txostenean daude zehaztasun gehiago.

Batzar horretan egondako taldekide batek adierazi digu herritarren partetik jarrera proaktiboago bat espero zuela.

Urte bukaerarako ondorioak aterako ditugu eta plangitza zehatzago bat izatea espero dugu.

- Bidegorria. Obraren egoera.

Bidegorriarekin batera herriko plazan zeozer egitea egitea komeni dela adostu genuen aspaldi (itxitura moduko zeozer jarri, batez ere umeak karretera aldera ez joateko). Bidegorriaren proiektuan ez dago ezer aurreikusita, baina O.A. arduratuko da barandilla batzuen aurrekontuak

eskatzeaz.

Bestalde O.A. eta A.G. taldekideek obraren egoera zein den eta azken berriak azaldu dizkigute:

San Juango aldean, haserako proiektuak ez zituen kontuan hartu ur zikinak eta euri urak bereiztea. Bereizketa egitea garrantzitsua zela kontuan izanda aurrekontua eskatu zitzaion Amenabarrekoei eta azkenean hitzartu zen 14.000,00 € obra baten bidez lan horiek burutzea. Baina Amenabar enpresak aurkeztutako proposamenean aldaketa bat zegoen: bidegorria eta San Juango errekaetara lekuz aldatzen ziren, hau da, egungo autoen errepidea, errekaetara eta etorkizuneko bidegorria izan beharrean, autoen errepidea, bidegorria eta errekaetara proposatu zuten.

Guzti honen berri Ordiziko udalari ekainean eman bazitzaion ere, idatzizko baimenaren zain gaude eta, azkenean, Foru Aldundiak lanak gelditu beharrezko baimenak eskuratu arte. Beharrezko paperak aste honetan iristea espero da.

Argiteria publikoaren inguruan, berriz, proiektuak aldaketa batzuk izan ditu. Hasiera batean, Ibareseko bidegurutzetik aurrera eta San Juanera iritsi bitarteko tramoaren mantenua Aldundiaren kontura zihoan. Diputazioarekin izandako bileren ostean, lortu da linea hori hiri lurzoruraino iristea. Honela, linea Pake Leku pareraino berrituko da eta mantenua Aldundiaren menpe geratuko da.

- Toki goxoko obra.

X.I. taldekideak Tokigoxoko obraren egoerari buruz galdetu du. Margotzea eta barandilla jartzea falta omen da.

- Beitiko iturria.

X.I. taldekideak Beitiko iturrian urak lurreko rejillaren kontra jotzen duela esan du eta ondorioz isuritako urak hezetasun eta lizuna sortzen ari dela.

- Aurrekontuak.

Aurreko bileran hasi ginen lantalde honek izan ditzaken proposamenak lantzen. Gehiegi ez dugu sakondu eta oraingoz proposamen hauek ditugu:

- Plazarako barandilla/itxitura berria: ~5000 euro
- Goiener borondatezko ekarpena: ~1700 euro.
- Bizikleta elektrikoak erosteko laguntzak: 250 euro.
- Herriko lokal ezberdinen energia auditoriak (eskola, etab.)
- Herriko argiteria berritu (aurretik auditoria eginez).
- Beko kaleko prozesutik eratorritako aktuzio zehatzak.